

## **2003KO MAIATZAREN 12KO** **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hiruko maiatzaren hamabian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Arantxa Zumelaga Agirre, Igor Sarrigi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti, Inazio Estensoro Eskisabel, Joseba Hernandez Madinabeitia, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Juan Manuel Serna Portugal.

Jose Luis Otamendi Romero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

Alkateak, bilkurari hasera eman aurretik aipatzen du Eguneko Gai Zerrendan ez dagoen 3. puntuarekin (6 H.A.ko Hirigintz hitzarmena) eta 4. puntuarekin (Zentru Geontologikoa eraikitzeko beharrezkoak diren lursailak Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea onartzea) erlazionatutako akordioa duela, eta Osoko Bilkurako gai bezala sartzeari eskatzen du.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, onartu egingen du.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2003ko martxoaren 19an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### **II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, 25 guztira, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

### **III.- 6 H.A.KO HIRIGINTZ HITZARMENA.-**

Alkatea hasten da esanez hitzarmenaren zirriborroa erdaraz bakarrik dagoela oraindik, eta aurreragoko 6. puntuan aipatuko den GIASELein egiteko akordioa ere bai. Jabeek zirriborroari oniritzia ematen diotenean euskaratuko dela argitzen du.

Ondoren, 6 HAKo Hirigintz Hitzarmenak AURRERAKINETan esaten duena azaltzen du Alkateak:

**LEHENA:** Lazkaoko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak Gipuzkoako Foru Aldundiak 1991ko irailaren 24an eginiko Diputatuen Kontseiluan hartutako akordioaz onartuak izan ziren.

...///...

6 Hirigintza Area ordenazio honetan mugaturiko guneeetako bat da, eta hirilurra bezala eta sailkatuta eta erresidentziala bezala kalifikatuta dago. Aipatutako hiri gunean 788,00 m<sup>2</sup>ko azalera duen partzela eraikigarri bat kokatuta dago, erabilera Publiko eta Sozialera bideratua.

**BIGARRENA:** Lazkaoko Udalak Zentru Gerontologiko edo Zaharren Egoitza bat eraikitze-ko interesera du, hirugarrengo adinekoei eskeinitako zerbitzua osatuko duena, eta horretarako gutxi gora-behera 2.000,00 m<sup>2</sup>ko azalera partzela bat aurrikusi behar du.

Hau guztia ahalbidetzeko, "6 HAKo Ekipamendu Sistema Komunitarioari dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntuala" titulua daraman dokumentua prestatu du Lazkaoko Udalak. Berau erabilera Publiko eta Sozialera bideratutako 6 HAKo partzela eraikigarriari dagokio, eta baita egun ez urbanizagarriak kontsideratutako beste orube batzuei ere. Dokumentu honek behin-betiko onarpena jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko 2002ko abenduaren 17ko Diputatuen Kontseiluan.

**HIRUGARRENA:** Francisco Javier Agirre Begiristain Jaunaren Oinordekoak 07 019 zbki.dun erreferentzi katastraleko partzelaren jabe dira. Finka honetatik zortziehun eta hamalau metro eta berrogei (814,40 m<sup>2</sup>) dezimetro karratu "6 HAKo Ekipamendu Sistema Komunitarioari dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntuala" dokumentuak ezarritako muga barnean sartzen dira.

**LAUGARRENA:** Josefa Iraola Mujika Anderea 07 468 erreferentzia katastraleko zbkidun partzelaren jabe da. Finka honetatik bi mila hirurehun eta hirurogeita hamalau metro eta hirurogeita hemezortzi (2.374,78 m<sup>2</sup>) dezimetro karratu "6 HAKo Ekipamendu Sistema Komunitarioari dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntuala" dokumentuak ezarritako muga barnean sartzen dira.

**BOSKARRENA:** Udala lantzen ari den Planemanduko Arau Subsidiarioen aldaketaren barruan, zeinaren behin-behineko onarpena teknikariek 2006ko abenduaren 31a baino lehen egitea posible ikusten duten, Burutze Unitate berri bat mugatzea aurrikusten da, hamairu mila bostehun eta hogeita hemeretzi metro eta laurogeita bi (13.539,82 m<sup>2</sup>) dezimetro karratuko azalera gutxi gora-behera.

Alkateak dio Francisco Javier Agirre Begiristain Jaunaren Oinordekoek eta Josefa Iraola Mujika Andereak 2006ko abenduaren 31ko epea laburtzea eskatu dutela, 2006ko ekainera edo, eta Udalak, teknikariek kontsulta egin ondoren, horrela egiteko konpromisoa hartu du.

Aipatu hirigintza gunea Hirilur Erresidentziala bezala sailkatua eta kalifikatua izango da, eta gehienez ere blokeko 48 etxebizitza libre eraiki ahal izango da bertan partzela batean edo gehiagotan banatuta. Beste hiru partzela bideratuko dira, zeinetan etxebizitza uni edo bifamiliarrak egin ahal izango dira, udalerriko hirigintz ekintzen ondorioz kaltetuta gertatu daitezken pertsonenetzako bideratuko direnak.

**SEIGARRENA:** Hitzarmen honetan barneratutako finken jabeak ondorengoak dira:

1. zbki.dun partzela: Fco. Javier Agirre Begiristain
2. zbki.dun partzela: Josefa Iraola Mujika
3. zbki.dun partzela: Jose M<sup>o</sup> Insausti Iraola
4. zbki.dun partzela: Miguel Izagirre Auzmendi
5. zbki.dun partzela: Victoriana Zabaleta Jauregi
6. zbki.dun partzela: M<sup>o</sup> Pilar Izagirre Auzmendi

...///...

...///...

**ZAZPIGARRENA:** Dokumentu honen helburua, Francisco Javier Agirre Begiristain Jaunaren Oinordekoenak eta Josefa Iraola Anderearenak diren "6 HAKo Ekipamendu Sistema Komunitarioari dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntuala" dokumentuaren barruan dauden partzela pribatuen dohaineko ematea arautzea da, aldi berean emaleei V aurrekarian deskribatutako Burutze Unitatearen aprobetxamendu urbanistikoa bermatzea, eta azkenik Udalaren esku hiru partzela erresidentzial eraikigarri jartzea.

Aurrekari hauetan guztietan oinarrituz, hitzarmen honek zera HITZARTZEN DUela jarraitzen du azaltzen Alkateak :

**LEHENA:** Francisco Javier Agirre Begiristain Jaunaren Oinordekoek, segregazio baten ondoren, Lazkaoko Udalari dohain ematen diote, kargarik gabe, "6 HAKo Ekipamendu Sistema Komunitarioari dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntuala" dokumentuko mugetan barneratutako zortziehun eta hamalau metro eta berrogei (814,40 m<sup>2</sup>) dezimetro karratuko azalera.

**BIGARRENA:** Josefa Iraola Mujika Andereak, segregazio baten ondoren, Lazkaoko Udalari dohain ematen dio, kargarik gabe, "6 HAKo Ekipamendu Sistema Komunitarioari dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntuala" dokumentuko mugetan barneratutako bi mila, hirurehun eta hirurogeita hamalau metro eta hirurogeita hemezortzi (2.374,78 m<sup>2</sup>) dezimetro karratuko azalera.

**HIRUGARRENA:** "6 HAKo Ekipamendu Sistema Komunitarioari dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntuala" dokumentuaren eratze eta tramitazioan sortu daitezken gastu guztiak Udalaren kontura joango dira, era berean aipatu lurren ematearen ondorioz sortu litezkenak eta azkenik emate hauen eskriturak formalizatzaren gastuak ere bai.

**LAUGARRENA:** Francisco Javier Agirre Begiristain Jaunaren Oinordekoak eta Josefa Iraola Mujika Andereak aipatu hirigintza gunearen aprobetxamendu urbanistikoetan parte hartuko dute, gainontzeko jabeekin batera. Irabazi eta kargen banaketari dagokionean, hau kasu guztietan berdina izango da, azaleraren arabera proportzionala.

**BOSKARRENA:** Burutze Unitate berriko jabeak, eta beraz bertako aprobetxamendu urbanistikoaren %90aren titularrak, Lazkaoko Udalari hiru partzela eraikigarri erresidentzial emango dizkiote, kargarik gabekoak, zeinetan etxebizitza uni edo bifamiliarrak egin ahal izango dira, udalerriko hirigintz ekintzen ondorioz eraginda gertatu daitezken pertsonenezko bideratuko direnak.

**SEIGARRENA:** Eratuko den dokumentu ekibanatzaileak Burutze Unitatearen %10eko aprobetxamendua emango dio Lazkaoko Udalari, urbanizazio kargarik gabe.

Alkateak, puntu nagusi hauetako hitzarmen hau onartzea proposatzen dio Osoko Bilkurari, prozesuak aurrera jarraitzeko eta gehiegi ez luzatzearen.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, hitzarmena onartzea erabakitzen du.

...///...

...///...

#### IV.- ZENTRU GERONTOLOGIKOA ERAIKITZEKO BEHARREZKOAK DIREN LURSAILAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI EMATEA ONARTZEA.-

Alkateak azaltzen du urriaren 31an zentrua egiteko akordioa hartu zela. Ordea lursailen desjabetzea gero egin denez, eta beraz akordioa egin zenean Udala titularra ez zenez, Foru Ogasunetik akordioa berriro onartzea eskatu dutela.

Akordioak honela dio:

##### AURREKINAK:

Udal Osoko Bilkurak, 2002ko urriaren 31an egindako batzarraldian, beste zenbaiten artean zentru gerontologikoa eraikitze beharrezko diren lursailen titularitatea kudeatu eta ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiari emateko akordioa hartu zuen. Jarraitutako prozesuaren ondoren, 2003ko apirilaren 16ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, ondoren deskribatzen den partzelaren zesio espedientea jendaurreko erakustaldian jartzea ebatzi zen:

“Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntualean 6 Hirigintz Areako 6.1 Orubea bezala definitutako partzela, 2002ko abenduaren 17ko Diputatuen Kontseiluak behin-betikoz onartutakoa. Zentru Gerontologikoa edo zaharren egoitza eraikitzea zuzendua dago, eta forma errektangeluarra du, Ipar-Ekialdeko izkina ezik, non zirkulu laurden bat falta zaion. Mila bederatziehun eta hamasei metro karratuko azalera du, eta mugak hauek dira: Ipar eta Ekialdetik: jabari eta erabilera publikoko espazio libreetara zuzendutako azalera; Hego eta Mendebaldetik, udalerriko hegoaldeko sARBIDETIK 2. Sektoreko glorietara arte doan bidetik banatzen duten espalo eta aparkalekuak.”

Guzti hau, Lazkao, Ataun eta Olaberriako Udalek, Lazkaon zentru gerontologikoa eraikitze Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuarekin izandako negoziaketaren emaitza da.

Zentru gerontologikoko berriaren eraikuntza eta kudeaketa osoki Gipuzkoako Foru Aldundiak egitea egoki ikusi denez, beharrezkoa da Lazkaoko Udalak goian deskribatutako partzelaren titulartasunaren zesioa egitea.

Bestalde, zentru berria eraiki eta martxan jartzeko lanek irauten duten bitartean, eta eguneko zentruaren zerbitzua berehala ematen hasi ahal izateko, berau Udal honen jabetzakoa den Orobione eraikineko 2. solairuko lokaletan eskeini daiteke, zeintzuk erabilera horretarako egokituak izan diren. Hori gauzatu ahal izateko beharrezkoa da lokal horien aldi baterako zesioa egitea.

Zesio espedientearen jendaurreko erakustaldi izapidea bete ondoren, epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu, Udal Osoko Bilkurak zera

##### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Lazkaoko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari goian deskribatutako partzelaren titulartasuna ematea onartzea, honek bertan zentru gerontologikoa eraiki dezan. Zesioa Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 111. artikulua ezarritako baldintzetan egiten da, ekainaren 13ko 1372//1986 Errege Dekretuak onartutakoa.

BIGARRENA: Egin beharreko eraikitze, ekipamendu, mantenimendu eta urbanizazio gastuak (hala nola bidearen desbideraketa etab.) Foru Aldundiaren kontura izango dira.

...///...

...///...

**HIRUGARRENA:** Lazkaoko Udala eta Gizartekintzaren arteko akordioaren ondorioz, Gizartekintza-Gizarte Zerbitzuen Departamentuak, Lazkao, Ataun eta Olaberriko herriei lehenetasuna emango die, erresidentzi, eguneko zentru nahiz eskeini daitezkeen beste zerbitzuetan sartzeari dagokionean.

**LAUGARRENA:** Lazkao, Ataun eta Olaberriko Udalak eta Gizartekintzaren arteko batzorde mistoa osatzea, zentru gerontologikoaren jarduerari jarraipena egiteko, zentruaren eguneroko jardueren alderdi ezberdinak aztertze, eta kontsideratu daitekeen beste edozein gaietarako. Batzorde hau gutxienez sei hilabetero bilduko da.

**BOSTGARRENA:** Orobione eraikineko 2. solairuko lokalen erabilera Gizartekintza-Gizarte Zerbitzuen Departamentuari ematea, bertan eguneko zentru zerbitzua eskeintzen hasi ahal izateko ondorengo baldintzekin:

- a. Lokal horien erabileraren zesia zentru gerontologikoa eraiki eta zerbitzua bertara lekualdatu artekoa izango da. Lekualdaketa horren ondoren lokalen erabilera Udalarari itzuliko zaio.
- b. Mantenimendu, ekipamendu, erabilerak ondorioztatutako beharrezko konponketa nahiz jardueraren garapenak eskatutako beste edozerlako gastu Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontura izango dira.
- c. Edozein obra egiten hasi aurretik Udalaren baimena eta dagozkion lizentziak eskatu beharko dira.
- d. Lokalen erabilera Udalarari kontserbazio egoera onean itzuli beharko zaio, Udalaren aldetik ordainik eman beharrik gabe.

**SEIGARRENA:** Akordio hau gauzatzeko beharrezko diren dokumentu guztiak izenpetzeko Alkatea ahalmentzea.

Gehitzen du Alkateak akordioa 15 egunetan jendeaurrean egon dela, partzela oraindik inskribatu gabe dagoela baina Udala dagoeneko titularra dela, akordioa onartu zeneko baldintza berdina mantentzen direla, eta beraz prozesuak aurrera jarraitzeko onarpen berri hau beharko litzatekela.

Puntu honetan Alkateak Ataun-Olaberria-Lazkao Udalen arteko akordioa azaltzen du:

#### ATAUN-OLABERRI-LAZKAO UDALEN AKORDIOA.-

#### AURREKARIAK

1999-2003 legealdiaren hasieratik lazkao, Ataun eta Olaberriko Udalek adineko pertsona ezinduentzako Zaintza Zentru baten behar nabaria somatu izan dute, beren udalerrietan sortutako beharrei erantzun ahal izateko eta gaur egun funtzionamenduan dauden zentruetan eskaintzen den plaza kopuru urriari aurre egiteko.

Foru Aldundiko Gizartekintza Departamenduarekin elkarrizketa eta harreman ugari eduki dira urte hauetan, behar hori adieraziz eta arazoari irtenbide egokia eman nahian. Elkarrizketa hauen fruitua izan zen 2002ko urriaren 16an Gizartekintza Departamentuaren eta Lazkaoko Udalaren artean sinatutako akordioa, akordio honek zera jasoz, beste zenbait punturen artean:

...///...

...///...

- Gipuzkoako Foru Aldundiak lehiaketa deituko zuela Lazkaoko Udalak lagatutako lursailetan zentru berria eraikitzeko eta berau kudeatzeko.
- Gizartekuntzak Lazkaon egingo duen gerontologia zentruko plazetan sartzeko lehentasuna bermatuko diela Lazkao, Ataun eta Olaberriko herritarrei.

Eta aurretik adierazitako kontutan izanik, Gizartekintzak Lazkaon eraikiko duen zentru gerontologikoan izango duten lehentasunari dagokionez, Lazkao, Ataun eta Olaberriko Udalek zera

#### ADOSTEN DUTE

LEHENA: Hiru udalerriei dagozkien plazen esleipenaren jarraipena burutzeko organoa eratuko da zentrua martxan jartzen den momentuan.

Organo honetako partaide izango dira ondoren zehazten diren karguak:

- Udalerri bakoitzeko Alkatea
- Udalerri bakoitzeko Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzia

BIGARRENA: hitzarmen honen ondorioz, sinatzen duten udalerriek obligazio ekonomiko-  
ren bat hartu beharko balute beren gain etorkizunean, obligazio horiek hiru udalerrien ar-  
tean ordainduko lirateke, udalerri bakoitzak duen biztanle kopuruaren proportzioan.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, akordioa onartzea erabakitzen du.

#### V.- SAN JOSEKO BERRURBANIZAZIO OBRAREN 7. ETA 8. ZERTIFIKAZIOAK.-

San Joseko Berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman INJELAN, S.L. en-  
presako Iñaki Laskurain Gisasola injenieroak lanen zazpigarren eta zortzigarren zertifika-  
zioa aurkeztu ditu. Zazpigarren zertifikazioa EHUN ETA LAUROGEITA HIRU MILA,  
SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMOKoa  
(183.670,46 €) da, eta zortzigarren zertifikazioa LAUROGEITA HIRU MILA, HIRUREHUN  
ETA BERROGEITA HAMABOST EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMOKoa  
(83.355,85).

Serna zinegotziak (PSE-EE) galdetzen du ea zertifikazio hauetan San Prudentzian  
egin den bidegorriagatik aldaketak sartuta dauden. Alkateak baietz erantzuten dio.

Zertifikazioak aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien  
aldeko botuarekin, berauek onartzea erabakitzen du.

#### VI.- GIASSEL ELKARTEAREKIN EMATE AKORDIOA.-

Estensoro zinegotziak (EAJ-EA) esaten du akordioaren 4. orrialdean, azken parra-  
foan, eranskin bat eranstea proposatzen duela berak, argiago gelditu dadin: hain zuzen  
ere bertan aipatzen diren betebeharez gain partzelaren mantenimendua eta desbrozea  
egiteko konpromezua hartzen dutela adieraztea.

Akordioak honela dio:

#### AZALTZEN DUTE

...///...

...///...

- I.- Lazkaoko Udala 45.515 m<sup>2</sup> dituen lursail baten jabe dela, eta lursail horrek ondare-ondasun kalifikazioa duelarik, Jabetza-Erregistroan inskribatuta eta Ondasun Inbentarioan aipatuta dagoela, kontratu honi atxikita doan ziurtagirian azaltzen den moduan.
- II.- GIASSEL (“Gipuzkoako Astozaleen Elkarte”) Elkarte, Enkarterrietako asto autoktonoaren babeserako, berreskuratzeko eta defentsarako sortu zena, aipatutako lursailaren .....m<sup>2</sup>-ko azaleraren aldi baterako prekarioko lagapenean interesaturik dagoela, eta Lazkaoko Udala honen jabe izanik, ondasun hori Prekarioan Erabiltzeko Aldi Baterako Lagapen-Kontratua egitea eskatu dio jabeari.

## H I Z B A K E T A K

LEHENA.- Felix Urkola Iriartek, Lazkaoko Udalaren izenean, lehen adierazpenean aipatutako lursailari dagokion PREKARIOAN ERABILTZEKO ALDI BATERAKO LAGAPEN-KONTRATU hau GIASSEL (“Gipuzkoako Astozaleen Elkarte”) Elkarteari ematen dio, eta honen izenean Ignacio Mendizabal Ansak onartzen du.

BIGARRENA.- Lagapenaren doakotasuna. Lagapen hau, prekario modura emana izanagatik, doakoa izango da.

HIRUGARRENA.- Epea. Lagapen honek HAMAR URTEKO epea izango du, bi aldean arteko akordioaz luza daitekeelarik, beti ere ondorengo hitzarmenean aipaturiko helburua betetzen bada.

LAUGARRENA.- Lagapenaren helburua. Lursail honen aldi baterako erabilera prekarioarako lagapenaren helburua, aipaturiko irabazi-asmorik gabeko Erakundeak bere sorreratik izan duen helburua bete ahal izateko beharrezkoa duen lursaila edukitzea da, hau da, Enkarterrietako asto autoktonoaren babesa, berreskuratzea eta defentsa; eta horretarako, “Enkarterrietako astoaren (Euskal Astoa) aurrerakoien hazkuntzarako Zentroa” hartuko duen ukulua eraikiko da, Nekazaritza-Ingeniari den José Nieto Prieto Visiedo Jaunak idatziriko Proiektuan oinarrituz.

Aipaturiko helbururako soilik erabili ahal izango da lursail hau, eta, helburu horretarako erabili ezean, lagapena amaitutzat emango da, Udal Administrazioaren kargu izatera itzuliz. Horrela, lagatako lursaila aske geldituko da, Udalaren esku, hilabeteke epean, Udalbatzak zentzu horretan igorritako Jakinarazpena jasotzen den egunetik hasita.

Elkarteak ezingo du lursailaren xedea aldatu, ezta aipatutako erabilerak ez direneterako erabili ere, besteri errentan laga, eskualdatu nahiz utzi, ez aldi baterako, ezta prekario moduan ere, laga den lursail osoa zein zatika, egoera onean mantentzera behartzen zaiolarik.

Udalak, lursaillean ikuskapenak egiteko ahalmena beregain hartzen du, lagapena egin denerako helburua betetzen dela egiaztatzeko.

Adierazitako lursailak baso-bokazioa dauka, beronen erabilerak, aipatutako helbururako izanik, uneoro nolakotasun honekin bateragarria izan beharko duelarik, eta ondorioz, lursailaren baso-bokazio hori alda dezakeen ekintzarik egingo ez direneko konpromisoa hartzen dute lagapen--hartzaileek.

...///...

...///...

**BOSGARRENA.-** Itzulketa. Prekarioan erabiltzeko lagapenaren epea amaitzean, hirugarren hizbaketan aipatu moduan, lagatako ondasuna lagatzaile den Erakundeari itzuliko zaio, bere jabego eta akzesio guztiekin, kasurako eraiki den ukuilua barne, itzulketa honek lagapen-hartzailearentzat kalte-ordainik sortu gabe.

Aipatutako lursailaren itzulketa hau, bere jabego eta akzesioekin, lagapen-hartzaileek, lagatako lursaila kontratu honen laugarren hizbaketan aipatu den helbururako erabiltzen ez duten kasuan ere gertatuko da, eta kasu honetan, lagapena amaitutzat emango da.

**SEIGARRENA.-** Aldeen arteko mendetasun-erlazioa. GIASSEL ("Gipuzkoako Astozaleen Elkarte") Elkarteak, elkarte pribatua izanik, ez du Udalarekiko mendetasun-erlaziorik, eta honek ez du adostasunik ezta onespenik ere agertzen, beraz, ez du ardurarik hartzen, ez zuzenean ezta subsidiarioki ere, aipatutako lursailean gerta daitezkeen kalteekiko, kalte hauek materialak, pertsonalak zein moralak izanik ere, edozein kasutan.

**ZAZPIGARRENA.-** Erantzukizun Zibileko Asegurua. Lagapen-hartzaileek, ondasunaren erabilerarako lagapena egiten den unean, laga den lursailean edozein kasutan gerta daitezkeen kalte material, pertsonal edo moralak aseguratuko dituen Erantzukizun Zibileko Aseguru bat izenpetzeko konpromisoa hartzen dute.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, akordioa onartzea erabakitzen du.

## VII.- TAXI-AUTOEN GARRAIO-ZERBITZUETARAKO JARDUNBIDE BEREZIKO GUNEA EZARTZEKO ELKARLAN-AKORDIOA.-

Goiekik hartutako akordioa berrestea litzatekela dio Alkateak. Bailarako 18 herrietako biztanleei zerbitzua emango dien taxi zerbitzu bat martxan jartzea proposatzen da, bateratuta bai araudi aldetik eta baita diru aldetik ere: araudia dagoeneko baduenak aldatu egin beharko du, eta ez duenak, onartu.

Akordioak honela dio:

AURREKARIAK:

### I.- TAXIEN JARDUERA-PLANA GIPUZKOAK

1997an Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, TAXIEN JARDUERA-PLANA GIPUZKOAN izenekoa aurkeztu zen eta plan horrek Taxientzako Plan Estrategikoan alde aurretik ezarritako ildo nagusiak garatzen ditu, gaiarekin zerikusia duten sektore guztiek parte hartuz:

⇒ Taxi-gidariak beren elkarte desberdinen bitartez

⇒ Eskuduntzak dituzten Administrazioek (Foru Aldundiak eta Udal desberdinek)

Plan horren "Laburpen eta Ondorioak" izeneko atalean, bere oinarriko helburuak aipatu ondoren, egungo errealitateaz egindako konstatazio batzuetatik sortutako "Gomendio" batzuek egiten ditu eta horiek dira Jarduera-planaren oinarriak:

...///...



...///...

- ⇒ Lizentzien egokitzapena
- ⇒ Elkarreak sortzeko bulkada eta sustapena
  - Zerbitzuak prestatzeko eskualdeko hitzarmenak
- ⇒ Merkatuak dibertsifikatzea

## II.- TURISMO AUTOETAN EGINDAKO BIDAIARIEN HERRI-GARRAIO HIRITAR ETA HIRIARTEKOAREN 2/2000 LEGEA ETA ARAUDI PROIEKTUA

Egun indarrean den Turismo-autoetan egindako Bidaiarien Herri-garraio Hiritar eta Hiriartekoaren 2/2000 Legeak, ekainaren 29koak, eta hemendik aurrera Taxien Euskal Lege izenez izendatuko denak, Taxi-autoetako garraio-zerbitzua eskualdeko bihurtzeko aukera ematen du Zerbitzuen Elkarregina izeneko legearen VI. Kapituluaren (18.-20. artikuluko), horretarako "JARDUNBIDE BEREZIKO GUNEAK" sortuz.

## III.- "JARDUNBIDE BEREZIKO GUNEAK" SORTU BEHARRAZ

Taxi-autoz egindako garraioaren sektorea berrantolatu beharrean ondorio moduan sortu da Hitzarmen hau eta bere helburua zera da, gipuzkoar lurraldearen eskualdekatze-proiektua burutzea, beti ere sektorearen garapenari eta berori indartzeari bide emanez eta erabiltzaileari zerbitzu hobea eskainiz.

## IV.- GIPUZKOAKO TAXI-GIDARIEN BATZORDEAK EGINDAKO DERRIGORREZKO TXOSTENA

Gipuzkoako Taxi-gidarien batzordeak, Taxien Euskal Legeak bere 22. artikuluan ezartzen duenaren arabera, aholkularitza emango dio eskuduntza duen administrazioko organoari eta derrigortasunez eman ere ondorengo kasuetan, horretarako egindako txostenaren bidez:

- a) Udalerri bakoitzean edota zerbitzua prestatu behar den gune bakoitzean zerbitzua prestatzeko izan behar duen lizentzia edo baimenen kopururik handiena ezartzeko
- b) Zerbitzu espezializatuak antolatzeko
- b) Elkarlanean zerbitzua prestatzeko lurralde-guneak eta jardunbide bereziko guneak sortzeko

Eta ados jarririk, ondorengo

HITZARTU DUTE:

Turismo-ibilgailuen garraio-sektorearen garapen hobea lortzeko eta erabiltzaileei zerbitzu-prestakuntza hobea eskaintzeko, aurrez esandako konpromiso horiek formal-tzea, ondorengo

HIZBAKETEN ARABERA

...///...

...///...

## LEHENA.- HELBURUA

ELKARLAN-HITZARMEN honen helburua zera da, eskualdeko garraio-sistema koordinatua abian jartzea, ondorengoak bermatu ahal izateko:

- Eskualdearen barruan Taxi-zerbitzua bere modu eta era guztietan izatea
- Udalerri bakoitzeko eskaintzaren eta eskariaren artean dauden gehiegizko eta gutxiegitzko desorekak murriztea, horretarako dauden baliabideak arrazionalizatuz
- Taxi-zerbitzuaren kalitate handiagoa izateko garraioan eraginkortasun handiagoa lortzea, aldi berean sektore honetako langileen lan-baldintzak hobetuz

## BIGARRENA.- TAXIEN UDAL-ARAUDIEZ

Turismo-autoetan egindako Bidaiarien Herri-garraio Hiritar eta Hiriartekoaren 2/2000 Legean, ekainaren 29koan, dauden Xedapenen eta aplikagarri diren gainerako xedapenen babesean, aurretik aipatu den helburuak estaldura juridiko hobea eta administrazioaren beharrezko kontrola izan ditzan, hemen bildutako udalek konpromisoa hartzen dute, beren hurremen hurreneko UDAL-ARAUDIAK gainerako udalekin era koordinatuan idazteko edota kasua bada aldatzeko.

Horretarako, Udalek beren araudietan, aldeztu aurretik hitzartutako eskualdean kokatutako udalerri bakoitzean prestatzen diren taxi-zerbitzuentzako, erregulazio-marko berdina ezarriko dute eta era berean ezarriko dituzte arau-hausteentzako sailkapenak eta zigorrak ere. Horrela, Taxi-en Euskal Legean aurrikusitako Jardunbide zigortzailea osatuz eta taxi-gidariak eskualdeko zerbitzu berriak prestatzen izango duten administrazio-erantzukizuna mugatuko dute.

## HIRUGARRENA.- "JARDUNBIDE BEREZIKO GUNEA" ESKATZEAZ

Lehen aipatutako udal Araudiak onetsi ondoren, eskualdeko garraio-sistema koordinatua abian jartzeko, agiri honetan agertzen diren udalek konpromisoa hartzen dute, bidezkoak diren udal-erabakiak hartu eta Gipuzkoako Foru Aldundi T.G.ri Goierrri izeneko eskualdea hartuko duen "JARDUNBIDE BEREZIKO GUNEA" sortzeko eskaera egiteko.

## LAUGARRENA.- LURRALDE ALORRA

Goierrri izeneko jardunbide bereziko gunea ondorengo udalerriek osatzen dute: Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo eta Lazkaoko udalerriek. Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zeraingo udalerriek.

## BOSKARRENA.- EPEA

HITZARMEN hau bi urterako izenpetu da eta agiri hau sinatu den une beretik sartu da indarrean.

Edozein kasutan ere, atal honetan hitzartutako epearekin zerikusirik gabe, epe hori igarotakoan, hurrenez hurren urtebeterako denboraldietarako tazituki berritu ahal izango da, baldin eta aldeetako edozeinen aldetik aurkako eskaerarik tarteko ez bada. Halakorik izanez gero, hitzarmenaren iraungitze-data baino hiru hilabete lehenago egin beharko da

...///...

...///...

eteteko eskaera bai lehenengo eepe hori amaitu baino lehen edota baita hurrenez hurreneko luzapen bakoitzaren mugaeguna iraungo baino lehen ere.

#### SEIGARRENA.- ZERGATIAK. Eskualdeko jardueren azterketa.

Ondoren aipatzen den taxi-zerbitzuen beharren aurrikuspena, hasierako da eta eguneroko funtzionamendua ikusi ondoren ateratzen diren ondorioen arabera, zerbitzua handitu edota txikitu egin ahal izango da, beti ere aldez aurretik Eskualdeko Batzordeak gaia aztertu eta ondorioak atera ondoren.

- 24 orduko zerbitzua
- Geralekuetako ohiko zerbitzua
- Deien arabera zerbitzua eta aldez aurretik eskatutakoena
- Mugikortasun mugatua duten pertsonentzako zerbitzua
- 7 edo 9 jarlekudun zerbitzua
- Administrazioarekin hitzartutako zerbitzua
- Eskola-zerbitzua
- Eskaera handiagoko egunetako arreta bereziko zerbitzuak ondorengo egunetan:
  - î Eskualdea osatzen duten herrietako bakoitzaren jai nagusietan eta sortzen diren ikuskizun eta ospakizun berezien egun guztietan.

#### ZAZPIGARRENA.- BALDINTZAK

Aurreko atalean deskribatutako beharrianak betetzeko hartu beharreko neurriak, ondorengoak dira:

- Gaueko zerbitzua, libre dauden taxi-gidariak aurkitzeko zerbitzua telefono-sistema baten bidez beteko da
- Geralekuko ohiko zerbitzua.
  - î Plaza duten taxi-gidari titularrek beteko dute
- Dei bidezko zerbitzuak.
  - î Geralekuetako telefonoen bidez zerbitzuak izango dira
- Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako zerbitzua eta 7 edo 9 jarlekudun zerbitzua. Bi zerbitzu horiek eskualdeko titular batekin negoziatzen ari dira.

#### ZORTZIGARRENA.- LURRALDE-ALORRA

Aurreko atalean ezarritakoa, ondorengo kasuetan aplikatuko da:

...///...

...///...

1. Zerbitzu iraunkorren kasuetan, hots, une jakineko beharrei dagozkienak ez direnean, baizik eta etengabeko eskaerari dagozkionak direnean, bai urtean zeharrekoak –urteko denboraldi jakinetan, hala nola herrietako jai nagusietan, kultur eta kirol-ospakizunetan, udaldian-, bai zerbitzu-motagatik –egunerokoa, jaietako edo gauekoa-.
2. Noizbehinkako zerbitzuak, hau da, iraunkorrak ez direnak

## BEDERATZIGARRENA.- TARIFAK

Zerbitzu iraunkorrei aplikagarri zaizkien tarifak, prestatzen diren zerbitzuen arabera Eskualde honetan indarrean daudenak izango dira –egunekoa, gauekoa, hiritarra edo hiriartekoa-, eta eskualdeko udalerrri guztietan berdinak izan beharko dute.

Bi aldeek ere espresuki hitzartu dute noizbehinkako zerbitzuentzako tarifak, Hitzarremen honi atxikitako eranskinean azaltzen diren prezio hitzartuak izango direla, izan ere, behar bezala estaltzen baitute taxi-gidaria herri batetik beste batera joateak sortutako gastua. Kopuru horiek urtero berrikusiko dira.

Tarifak berritzeko eskaera, tarifa berrien proposaemnarekin batera, Goiekiri aurkeztuko zaizkio eta Goiekik egingo du bidezkoa den izapidetzea, Udaletan proposamena onetsia izan dadin.

## HAMARGARRENA.- ESKUALDEKO BATZORDEA

- a) Hemen bildutako bi aldeek konpromisoa hartzen dute, Eskualdeko Batzordea sortzeko hartu beharreko erabakiak hartzeko. Batzorde horrek finkatuko ditu taxi-zerbitzuak eskualdean prestatzean bete beharreko baldintzak. Zentzu horretan eta izendatze aldera soil-soilik, ondorengo arloak aipatzen dira Batzordearen zeregintzat:
  - Sektorearen eta udalen arteko komunikazioa ezartzeko solaskide izan
  - Taxien funtzionamenduaren gainbegiratzaile izan eskualdean
  - Arazoak konpondu
  - Sortzen diren beharrei erantzuna ezkar eman
  - Udalerrri bakoitzean taxi-zerbitzuaz aholkuak eman
  - Taxiaren Euskal Legean aurrikusitako Jardunbide zigortzailea hitzartu zerbitzu berrien prestakuntzan taxi-gidarien administrazio-erantzukizuna mugatzeko
- b) Batzorde hori, zerbitzua eskualdekatzean zerikusia izan dutenek erdiibana osatuta egongo da, hau da, Taxi-gidarien gremioko ordezkariak eta eskualdeko Udaletakoak:
  - GOIEKI eskualdeko erakundeko 2 ordezkari iraunkorrek.
  - Goierriko Eskualdeko Batzordeko 2 ordezkari iraunkorrek.

...///...

...///...

- Tratatu behar den gaiaren arabera aukeratutako eskualdeko erakundeko unean uneko ordezkari 1ek.
- Tratatu behar den gaiaren arabera Taxi-gidarien Eskualdeko Elkartean horretarako aukeratutako unean uneko ordezkari 1ek.

Serna zinegotziak (PSE-EE) galdetzen du, tarifa-bateratasunari buruz, ea jakina den zein diferentzia dagoen herri desberdinetako tarifa desberdinen artean.

Alkateak erantzuten dio prezioak Goieki eta taxisten beraien artean osatutako batzordeak ezarriko dituela.

### VIII.- SAKABANAKETAREN ONDORIOEI BURUZKO MOZIOA.-

Madinabeitia zinegotziak (Batasuna) esaten du Juli Gonzalezek ezin izan duela etorri eta bere ordezkari berak irakurriko duela mozioa:

“Gaur egun Euskal Herrian Espainia eta Frantziako estatuen espetxe politikak sakabanaketa bultzatzen duenez, presoak beraien sorterritik ehunkada kilometrotara dauden espetxeetan beraien zigorra betetzea beharturik daude.

Euskal gizarteak argi eta garbi adierazia du euskal presoak euskal herriratzearen beharra. Presoen senitarteko zein lagunek gizalegekoa ez den egoera hori pairatzen dute eta presoekin minutu gutxi batzuk egon ahal izateko ehunkada kilometro egitera beharturik daude. Bidaia hauek istripuak izateko harriskua eragiten dute, behin baino gehiagotan gertatu izan den bezala, batzuetan ondorio larriekin gainera. Bidaia egiteak ere gastu ekonomiko asko sortzen ditu bai egonaldiak sortutakoak gaua nonbaiten pasa ahal izateko, bai bidaiari bertan sorturikoak gasolina eta peageak, eta baita otorduek sortutakoak ere.

Horren aurrean, eta presoen familiartekoek pairatzen duten egoeraren aurrean, Lazkaoko Udalarik honakoa eskatzen diogu:

- 1.- Odoluzte ekonomiko honi aurre egiteko, sakabanaketaren eraginez Euskal Herritik urrun preso dauden Lazkaotar guztien familiartekoek bidaiak egiteko dirulaguntzak ematea.
- 2.- Dirulaguntza Lazkaotik Presoa sakabanaturik dagoen kartzelara dagoen kilometro kopuruaren arabera emango da, hau da, presoari egiten zaion bisita bakoitzeko 0,20 euro kilometroko, eta gehienez ere, bi astez behin izaten den bisitagatik eta presoko kotxe bat. Kilometroak zenbatzeko orduan joan-etorria egiteko dagoen kilometro kopurua hartuko da kontuan.
- 3.- Sakabanaketaren eraginez, txosten honetan jasotzen ez den egoera berezi bat emango balitz: osasun asistentziak dakartzan arazo eta gastuak, bisak astean zehar egin beharra eta ondorioz lana galtzea, trasladoetan kartzela batetik bestera ibili beharra, asistentzia juridikoan arazorik balego, estatutik kanpora kartzelaratu izan, konfinatu izan, epaitua izan edo eta antzeko ezohizko beste egoera bat emango balitz, momentuan momentuko erabakiak hartuko dira kasuz kasu aztertu ondoren. ”

Madinabeitia zinegotziak (Batasuna) esaten du idatziak garbi uzten duela honekin ez dela eskatzen sakabanaketa bera onartzea edo ez, hori hor dagoela, konpromezu ekonomiko eta solidario bat eskatzen dela baizik.

...///...

...///...

Estensoro zinegotziak (EAJ-EA) esaten du beraiek gaia aztertu dutela, sakabanaketarekin ados ez daudela, baina hala ere esaten du gai hau aurretik ere bi aldiz aztertu dela, beraiek postura berdinean mantenduko direla eta ez direla diru-kontutan sartuko, aparteko beste argudiorik ez dutela ikusten eta.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du orduan ados dagoela EAJ-EA taldeak azaldu duen jarrerarekin.

Eztabaidaren ondoren mozioa bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 4 botuz (Batasuna) eta aurkako 6 botuz (EAJ-EA, PSE-EE), mozioa ez onartzea erabakitzen du.

#### IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (Batasuna) esaten du jakina dela dagoenezko hurrengo hauteskundeetan zer gertatu behar den eta, inolako jakinarazpenik jaso ez dutenez, gai-nontzekoei galdetzen die ea kanpainan eta ondoren ere lan egiteko kontzientzia lasai eduki behar duten.

Alkateak erantzuten dio ez dela herri mailako gai bat, gauzak dauden bezala daudela eta ez dutela ezer berezirik adostu, testuinguru orokorraren barnean egongo direla.

Amundarain zinegotziak (Batasuna) jarraitzen dio esanez ez zaiola normala iruditzen orain arte Batasuna bezala jarraitzea esan izan zaiela, praktizidadeagatik edo, eta orain bilera batera ere ez zaiela deitu, jakinik botuetan indar antzekoa dutela; preokupazio minimo bat eskatzen du.

Sarriegi zinegotziak (EAJ-EA) galdetzen dio Amundarain zinegotziari (Batasuna) ea berak irtenbiderik baduen.

Irastortza zinegotziak (Batasuna) erantzuten dio irtenbideak besteek borondatea baino gehiago dituztela, baina agian Espainiako legediaren barnean ezetz.

#### X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko 8ak laurden gutxi direnean, nik, Idazkari Akzidentalak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

...///...